



## DONOSTIAKO UDALETXEAK

### INTERESES PRIBATUAK GAILENTZEN DITU OROKORRAN AURREAN

### MERCADONAREN BETELANERAKO EMANDAKO UDAL BAIMENA, ILEGALA DA!

Aurreko maiatzaren 12an ekologista talde sinatzaileek medioen aurrean **“Añ-13.2 Cantera” (Mercadona) delako proiektuaren obra-eremutik kanpo baimenik gabe eta legearen kontra, egiten ari diren lanak eta jarduerak salatu genituen, bertako hango garrantzi handiko balioak kaltetuz.**

Baimenarik gabeko obrak, 150.000m<sup>3</sup> tako harri betelana, zero irekian etenik gabe egindako harrien transformazio eta txikiketa (harrobi bat Bbezala), mendi pisten irekiera interesdun zuhaitz zonaldeak suntsituz, nola ibaibide eta biodibertsitateari eragindako kalteak, udaletxean apirilaren 6tik behin eta berriro salaturik izan dira instituzio honek inolako zigor edo etenaldirik ebaztu gabe ingurumenaren eguneroko degradazioa baimenduz, egun gunea guztiz suntsitu dutelarik.

Gure aurreko salaketa publikoaren ostean, non udaletxeak hilabete bat baino gehiagoren luza-roan babesturiko ilegaltasunak agerian jarri genituen, hirigintzako zinegotzia (aurretik salaketak zuzenduritako persona bera) “Eusko Jaurlaritzaren baimen bat zegoela” eta “ongikusia ematen zuen informe tekniko bat zegoela” deklaratzera bizkortu zen.

Honen aurrean salatu nahi dugu: **adierazpen horiek faltsuak direla** eta hiritarren aurrean egia ezkutatzen zutela: alde batetik obra horiek baimentzeko administrazio aginpedun **bakarra** udaletxea da eta bestetik, delako udal txosten tekniko ez zen existitzen adierazpen horiek egin zirenean, bere data geroagokoa baita.

Donostiako udaletxea sustatzaile pribatu batzuen interes ekonomikoen alde ezarri da interes orokorraren defentsan egiteari utzi dionean hiritar salaketak ez entzunarena eginez, eta zigorririk ezarri gabe salatutako jarduketa ilegalen konplize izateak ekarritako istilua dela eta, astelehen honetan bertan betelanarako baimena emateko ebazpena atera du korrika eta presaka.

**Berriro ere baimen hau guztiz ilegala eta arbitrarioa dela salatzen dugu, eta horren aurka berrikusteko errekurtsioak jarri ditugu, legearen kontrakoa izanagatik.**

Udaletxetik ez da salaturiko beste jardueren inguruan geldiarazteko ebazpenik eman ezta espedienerik ireki, aste honetan bertan baimenik gabeko harri txikiketa jarduera ilegala jarraitu duelarik.

Legalitatearen urraketa nabarmen eta itzel honek suposatzen duen babesaren bila, gertatutakoak Ararteko, Fiskaltza, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren ezagueran jarri egin ditugu.



**Talde ekologistek erantzunkizunak egon daitezen eta emandako jarduketetan delituzko dagoen aztertu dadin eskatzen dugu. Era berean suntsitutako elementu natural guztien leheneragotzea exijitzen dugu eta bere sortarazleak eredu izun bat jaso dezaten ingurumenerako ondorio larriak izan dituzten salatutako gartekari guztientzat.**

Udaletxeak interes orokorraren eta ingurumenaren kaltean sustatzaile hauen interes pribatuari mesede egin diela uste dugu, eta Ramosen zinegotzigoa esfortzu handia da egiten obra hau gera ez dadin: zergatik?

Gipuzkoako ekologistak honen guztiaren inguruan berehalako prentsaurreko batean emango ditugu azalpenak orain arte legez kontrako egindakoak salatu ditugun bezala.

Donostian, 2016ko maiatzak 19

Contacto: 609 420 438 (Haritzalde) - 637303985  
[naturzale@haritzalde.org](mailto:naturzale@haritzalde.org)  
[errekaxulobabestu@gmail.com](mailto:errekaxulobabestu@gmail.com)